



## **HAZTEGI IKASTOLAK 50 urte 50 tontor eta bazter!**



Haztegi Ikastolak 50 urteotan erakutsi duen nolakotasunak eguneroko lanean, esfortzuan, oztopoak gainditzean eta bere kide guztien arteko auzolanean du funtsa.

Bide beretik jarraitu nahi dugu hurrengo urteetan ere. Horren lekuko izan nahi dute ikasturtean zehar antolatuko dugun ekintza sortak eta baita ondorengo ekimen xumeak ere:

### **HAZTEGI IKASTOLAK 50 urte 50 tontor eta bazter!**

Ospatu dezagun urteurrena lagunartea, familia, aisia eta natura uztartuz! Munduko edozein mendi-tontorretara igo edo edozein bazter interesgarri bisitatzen baduzu, atera argazkia ikastolako kamiseta edo zapia erakutsiz.

Ondoren Haztegi Ikastolako Facebook kontuarekin partekatu edo etiketatu edo bidali honako helbidera mendi edo bazterraren izena adieraziz:

[50tontor@haztegiikastola.eus](mailto:50tontor@haztegiikastola.eus)

Ikastolako Facebook kontuan zintzilikatutako argazkiek ikus-entzuneke polita osatzeko materiala eskainiko digute. Animatu zaitetzte!